



Getxo
bizi ezazu

Orri kopurua / Nº de páginas:

Data / Fecha:

PRENTSA-OHARRA / NOTA DE PRENSA

Aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fasean, proiektuak lehenestekoan,
 proposamen bozkatuena izan zen

Aiboa Metro geltokiko sarbidearen inguruan segurtasuna hobetuko da

Aiboa Metro geltokiko sarbidearen inguruan segurtasuna hobetzeko proposamena izan zen bozkatuena aurrekontu parte-hartzaileen barruan proiektuak lehenesteko bigarren fasean, zein martxoaren 23an bukatu zen. Zabaldutako kanal ezberdinen bitartez, 986 boto-paper jaso ziren, eta horietako 817 boto baliodunak izan ziren. Baliiodunen artean, 475 emakumezkoenak izan ziren eta 342 gizonezkoenak.

Amaia Agirre Gobernu Irekiaren zinegotziak oso positibotzat jo du herritarrek izan duten parte-hartzea, udal aurrekontuei ekarpenak egin ahal izateko aurten lehenengo aldiz martxan jarri den honetan. *"Halere", esan du Agirrek, "jarduerak sustatzen jarraituko dugu herritarren eta Udalaren artean gero eta harreman estuagoa eta aktiboagoa lortze aldera. Gure ustez, hautatutako proposamenek zerbitzua eta erantzuna emango dizkiete, hainbat jarduketa eta tematikatan, udalerriko auzo eta adin ezberdinetako pertsoneri".*

Bildutako puntuazioak

Hautatutako proposamenak, jasotako puntuen arabera, honela sailkatzen dira:



Getxo

bizi ezazu

ORDENA	PUNTOAK	PROPOSAMENA
1	4922	Aiboa Metro geltokiko sarbidearen segurtasuna hobetzea. 650.000€
2	4371	Zahartze aktiboari lotutako jarduerak egitea 100.000 €
3	4212	Enpresei eta pertsona ekintzaileei laguntzak ematea 50.000 €
4	3975	Portu Zaharraren eta Genaratxu eta Usategiren arteko loturaren irisgarritasuna hobetzea 700.000 €
5	3487	Txakurren gorozkiak kontrolatzeko eta kontzientziatzeko jarduerak egitea 100.000 €
6	3336	Formatu txikiko kontzertuak egitea, udan kanpoaldean, plazetan edo lorategietan 40.000 €
7	2670	Seinaleak jartzea Getxon turismoa sustatzeko 40.000 €
8	2448	Beka sortzailea Europako gazteentzat, udalerrira bizitzera etorri eta Getxo eszenatokia duten testuak idatz ditzaten 15.000 €

Ezarritako baldintzen arabera, non 2017ko udal aurrekontuan milioi euroko diru-partida bat erreserbatzen zen, erabaki beharko da hautatako proposamenen artean zein gauzatuko den aurtengo udal aurrekontuaren kontura.

Gogoratu behar da, aurrekontu parte-hartzaileen bigarren fase honetan, proposamenak jasotzeko Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokietan hiru postontzi jarri zirela. Halaber, kutxak jarri ziren Herritarren Arretarako Bulegoetan (HAB) eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kirolegietan; gainera, informatzeko karpak jarri ziren Algortako Geltokia plazan (martxoak 16) eta Areetako Geltokia plazan (martxoak 17), eta parte hartzeko aukera eman zen udal webgunean erabilgarri zegoen inprimaki digitala betez, edota inprimakia helbide elektronikora bidaltzeko eskaneatutako eranskin gisa.

Prentsa Bulegoa: 94 466 03 20.

Eskatzen dizuegu ohar hau zabaltzea.
Adeitasunez.